Ayuntamiento de MAÑERU
MAÑERUko Udala
MAÑERU (Navarra-Nafarroa)

Plaza de los Fueros, 1 - Foru Plaza, 1
31130 MAÑERU (Navarra-Nafarroa)
C.I.F./I.F.K.: P3116000E
maneru@valdemaneru.es
T: 948 340 479

# BANDOA

## ZERBITZU ANITZETAKO PEOIEN LAN-ESKAINTZA

ITZIAR MARTINEZ ARBELOA, MANERUKO UDALEKO ALKATEA:

JAKINARAZTEN DU:

Administrazio honetan, lan-erregimenaren bidez, aldi baterako lanaldi osoko lanpostu bat kontratatuko da, Mañeruko Udalean zerbitzu anitzetako peoi lanak egiteko. Lanpostu horrek sei hilabeteko iraupena izango du, eta lan-eskaintzan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean kontratatuko da.

BETEKIZUNAK:

- Eskola-ziurtagiria izatea, edo eskaerak aurkezteko epean eskuratzeko moduan egotea.
- 2024ko martxoaren 15a baino lehen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan langabezi egoeran eta lan eskatzaile gisa izena emanda egotea zerbitzu anitzetako peoi lanetan.
- Gidabaimena izatea eta ibilgailua edukitzea.

KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE IRIZPIDE BATZUK:

- Aukeraketatik kanpo geratuko dira aurreko urtean, hiru hilabetez edo gehiagoz, honen antzeko deialdi batean, tokiko erakunde honentzat lan egin dutenak.

LAN ORDUTEGIA:

- Goizez.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bidaltzen duen zerrendan agertzen diren interesdunek martxoaren 22ra arte eman ahalko dute izena, curriculum vitae-a aurkeztuz Mañeruko Udaleko bulegoetan.

Jendaurrean aditzera ematen da, guztiek jakin dezaten.

Mañeru, 2024ko martxoaren 4a.

Alkatea,

AYUNTAMIENTO DE MAÑERU (Navarra)

Itziar Martinez Arbeloa